

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Datorren astelehenean, abuztuaren 15ean, hasiko da denboraldi zinegetikoa, "debeku-erdiko aldiaren" irekierarekin

Irailaren 25era bitarte ehizatu ahal izango dira galeperrak eta usapal arruntak, ostegunetan, larunbatetan, igandeetan eta jai-egunetan

Asteartea, 2016.eko abuztuak 9

Datorren astelehenean, abuztuaren 15ean, [2016-2017 denboraldi zinegetikoa](#) hasiko da Foru Komunitateko esparruetan, "debeku-erdiko aldia" irekiko baita; hau da, galeperrak eta usapal arruntak ehizatzeko aukera eskaintzen den denboraldia.

Espezie horiek ehizatu ahal izango dira abuztuaren 15etik irailaren 25era bitarte, ostegunetan, larunbatetan, igandeetan eta jai-egunetan. Galeperrarentzako eta usapal arruntarentzako kupoak ezarri dira, pertsonako eta eguneko hamar eta pertsonako eta eguneko bi, hurrenez hurren. Ehizatzeko ordutegia ondorengo izango da: eguzkia atera baino ordubete lehenagotik hasi eta eguzkia sartu ondorengo ordubetera bitartekoa.

Nafarroako hegoaldeko barrutietan, soilik ehizatu ahal izango dira antolamendu zinegetikoko planetan horretarako gaitutako zonetan. Aldiz, iparraldean, debeku-erdiko aldia egin ahal izango da esparruetako lursail guztietan.

Halaber, astelehenean, hilaren 15ean, hasiera emango zaio untxiaren udaldiko ehizari, espezie horrek kalteak egin dituela justifikatzen duten barrutietan nahiz esparru guztian 3 ale edo gehiago egotearen indize kilometrikoak erakusten dituzten barrutietan. Ehizaldi horietarako, barrutiko zaintzaileak bertan egon beharko du, antolamendu zinegetikoko planean horretarako ezarritako gunetan burutu beharko dira, eta ehiza urriaren 2ra arte egin ahal izango da larunbatetan, igandeetan eta jai-egunetan. Horrela, aurrez Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazioaren Departamentuari jakinarazi beharko zaizkio ehiza-egunak, kalteen justifikazioa eta zaintzailearen kontratazioa.

On line ordainketak eta izapideak

Gogoratu [hainbat izapide on line](#) egin daitezkeela; hala nola, datu pertsonalak eguneratzea, lizentzia-txartelen kopia eskatzea eta urteko tasak ordaintzea (lizentzia behin ateratzen da, eta, ondoren, tasak urtero ordaindu behar dira). Horrez gain, ordainketa banku-helbideratzearen bidez egin daiteke (web bidez), Internet bidez ordainketa-gutuna eskuratu banku-erakundera ordaintzera joateko eta on line ordaindu kreditu-txartelarekin.